

10.000 korsikar kalera atera dira Aiacciu botere legegile bat eskatzearen

Corsica Nazione eta beste nazionalisten asmoa zen herritarren iritzia agertzea

Allande Sokarros / Baiona

Alderdi nazionalisten deiari erantzunda, milaka korsikar manifestatu ziren atzo Aiacciu, Korsikarentzat aginte legegile bat eskatzeko Frantziako Gobernuari. Eskakizun honek ez zuen Lurralde Asanbleako biltzarkideen gehiengo jaso, iragan martxoaren 10eko saioan. Parisek edozein erabaki hartu aurretik, Korsikako herritarrek kontsulta ditzan eskatzen du, ordea, Lurralde Asanbleak herenegun hartutako mozioak.

KORSIKAKO 22 alderdi, talde edo egitura nazionalistak Aiacciu atzo egin zuten manifestaldiak arrakasta zabala jaso zuen, 10.000 lagun inguru elkarretaratu eta kaleetan zehar ibili baitziren. Poliziaren arabera, haatik, manifestariak 5.000 ziren eta antolatzaileek 12.000 zirela esan zuten.

Pà l'avvene di u populu corsu, un putere legislativu (Korsikar populuaren etorkizunarentzat, botere legegile bat) jartzen zuen pankarta baten atzetik joan ziren jendeak, eta Aiacciuko erdialdean zehar ibili ondoren, De Gaulle enparantzan amaitu zen manifestazioa, hain zuzen ere Eskualde Prefeturako eta Lurralde Asanbleako egoitzen artean.

Korsikarentzat legeak egiteko eskumena izango duen botere bat eskatuta, antola-



Nazionalisten aurreko manifestazio bateratua, 1999eko maiatzean.

tzaileen asmoa zen Lurralde Asanbleak iragan martxoaren 10ean gehiengoz hartutako mozio bati salaketa agertzea katean. Egun hartan, dezentralizazio sakon bat eskatzen zuen mozioak gehiengo absolutua lortu zuen, zeren eta 51 biltzarkideetatik 26k haren alde egin baitzuten. Lurralde Asanblearentzat legeak egiteko ahalmena eskatzen zuen mozioa, aldiz, 22 boterekin geratu zen. Emile Zuccarelli Frantziako Funtzio Publikoko

ministro eta Lurralde Asanbleako PRGko hautetsiak aurkeztutako moziak adostasun nahiko bitxia lortu zuen, ezkerreko erradikalek (PRG), komunistek (PCF) eta gaulistek (RPR) haren alde egin baitzuten. Autonomia baten baliabideak eskatzen zituen testuak, berriz, Jose Rossiren inguruko eskuindarren eta hautetsi nazionalisten bozak jaso zituen.

Boto haren emaitzek ezuste sortu zuten, zeren eta pentsatzen baitzen Lurralde

Asanbleako hautetsien artean gehiengo bat bazela autonomia estatutu bat eskatzearen alde. Corsica Nazione talde nazionalistak —zortzi hautetsi— berehala iharduki zion boto honi, Lurralde Asanbleako zinegotzi gehien eta herritar gehien iritzien artean alde handia badela ziurtatuta. «Herriak zinez zer nahi duen» agerian uzteko xedearekin zuten, beraz, manifestaldi baten egiteko erabakia hartu.

Erreferenduma eskatu dute hautetsiek

Manifestaldi hau gertatu zen Lurralde Asanblean egondako bi eguneko saioaren ostean, zinetan mozio bat onartu zen, «Korsikaren etorkizuna finkatzearren», herritarren kontsultazio bat «nahitaezkoa» dela aldarrikatzen duena. Testu honek 27 hautetsiren aldeko botoa jaso zuen eta 23 biltzarkidek aurka bozkatu zuten. Mozio honek Frantziako Gobernuari eta Legebiltzarrari eskatzen die «korsikarren iritzia agertzeko printzipioa onartzeko eta gauzatze juridikoa finkatzeko».

Testuak ezinbestekotzat jotzen du, haatik, korsikarrei eginen zaien galderaren molda Lurralde Asanblearekin batera egitea, «ulergarria izan dadin». Corsica Nazione nahi zuen mozioan galdegin zedin herritarrek euren iritzia eman zezaten Korsikak botere legegilea eduki behar duenez, baina atzera bota zuten.

laburrean

BIELORRUSIA

■ Ehunka lagun atxilotu ditu Poliziak oposizioaren manifestazio batean

POLIZIAK ehunka lagun atxilotu zituen atzo Minsken, Aleksandr Lukaxenko presidentearen aurkako manifestazio batean parte hartzen ari zirela. Atxilotuen artean zeuden Poloniako hiru diputatu, Poloniako eta Errusiako hainbat kazetari eta oposizioko buruzagiak. AFP agentziaren arabera, 5.000 lagunek hartu zuten parte Lukaxenkoren autoritarismoaren aurkako protestan.

FRANTZIA

■ Gehiengo zabala lortu du Huek Alderdi Komunista berritzeko

ROBERT HUE PCFko lehen idazkariak «Alderdi Komunista berriaren sorrera» aldarrikatu zuen atzo Martiguesko kongresuan. PCFren ildo berria zehazten duten proposamenak %91tik gorako sostengua lortu dute azken bi egunotan. Huek txalo zaparrada beroak jaso zituen arratsaldean, PCFk ez ezik, ezker askotariko Gobernuak ere «gizarte mugimenduen beharra» duela aldarrikatuta.

ESPAÑIA

■ PPren laguntza izango du CCK Kongresuan bere talde parlamentarioa osatzeko

KOALIZIO KANARIARRAK (CC) berriro ere PPren laguntza jasoko du Espainiako Kongresuan talde parlamentarioa eduki ahal izateko. Bost diputatu behar dira horretarako, baina CCK lau bakarrik dituenek, PPko diputatu baten laguntza jasoko du. Gehiengo osoa izan arren, PPk CCren laguntza bilatuko du legegintzaldian zehar.

G R E Z I A

■ Gutxienez zortzi etorkin ito dira Kos uhartean

ZORTZI etorkinen gorpuak azaldu ziren atzo Kos uhartearen ipar ekialdean. Salbamendu taldeak inmigrante gehiagoren bila aritu ziren atzo. Antza denez, etorkinak Turkiatik abiatu ziren eta gatzetxoak zeuden haien artean.

Jospinek «egokitze batzuk» egingo ditu bere Gobernuan

■ Sautter eta Allegre ministroak gutxienez ez dira egongo bihar ezagut daitekeen Frantziako exekutibo berrian

A. Sokarros / Baiona

FRANTZIAKO GOBERNUAREN osaketan aldaketarik egongo dela dagoeneko ez da zalantzarik, Lionel Jospin lehen ministroak berak baietsi baitzuen atzo alderdi sozialistaren kontseilu nazionalan egindako hitzaldian. «Hiru urte ia beteko direlarik Gobernua lanean hasi zenetik, egokitze zenbait egiterat behartuta izango naiz, bere jarduera sendotzeko xedez», erran zuen Jospinek.

Alabaina, Gobernu aldake-

tarik egotekotan, datorren urteko martxoan gertatuko diren udal hauteskundeetan egitea pentsatu zuen Jospinek. Haatik, azken hila-beteotan plazaratu diren gatazka sozialek epe hori laburtzera behartu dute. Gatazka hauetan nahastutako ministroak dira, ziur aski, aldatuak izango —baliteke bihar bertan gertatzea mudantza—. Hala, Christian Sautter —administrazio fiskaleko langileen protesta zabalari aurre egin behar izan dio— aldatuko dute

Finantza Ministerioan. Sautterrek oso gaizki bizitu du, gainerat, bururaino eraman nahi zuen administrazio fiskalaren erreforma bertan behera uzteko erabakian hartu beharra, iragan astean,

Zuccarelli eta Allegre

Jospinek, Sauttereren ordezkatzeko, Alain Richard Defentsa ministroaren, Elisabeth Guigou Justizia ministroaren edo Michel Sapin ministro ohiaren izenak dira gehienik aipatuak.

Hezkuntza sailean, berriz, zalantza izpirik ere ez da Claude Allegre ministroak alde egingo duela, irakasleek eta ikasleek erabat baztertu baitute gaur egun. Honen ordezkatzeko, Jean Glavany Nekazaritza eta Arrantza ministroa aipu da.

Litekeena da halaber karguz aldatu dadin Emile Zuccarelli Funtzio Publikoko ministroa, honek ez baitu lortu 35 orduko lan astearen inguruan akordio orokor bat finkatzea funtzionarioekin.